

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

353 zb.
www.getxo.eus

>> 2021eko Otsaila

Nabarmen^{tze}koak

> Aisialdi hezitzailea pandemia garaian

- > Wanted tailerra, aurkeztutako proiektuen aholkularitzarako
- > Auzolandegiak programan 2021eko Kartela Diseinatzeko Lehiaketa



BUCEOAGUA
.COM



Auzolandegiak programan 2021eko Kartela Diseinatzeko Lehiaketa

Otsailaren 14ra arte dago zabalik 2021eko Auzolandegiak programako Kartel Lehiaketan lanak aurkezteko epea. Kartel lehiaketa horren garaileak, joan-etorriko hegazkin bidaia bat irabaziko du Hego Amerikako herrialde batera, Euskadiko Gazteak Lankidetzan 2019 programaren barruan lankidetzatza proiektu bat egin den herrialdeen artean daudenetako batera.

Lehiaketa 18-30 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta eta Euskadin errolatuta beharko dute izan. Egile bakoitzak, irudi bat (ilustrazioa, konposizioa edo argazkia) bidali beharko du programa irudikatzen, jpg, svg, ai... formatuan, 70x50 cm-ko neurriekin, bertikalean edo horizontalean, eta inprentan erreproduzitzeko adinako kalitatearekin. Aukerakoa da irudiarekin edo programarekin zerikusia duen lelo bat proposatzea (ez da beharrezkoa leloa irudian txertatzea), eta euskaraz zen gaztekeraz egin daiteke. Argibide gehiago jasotzeko eta izen-emateak egiteko: <https://bit.ly/3t7i9ic>

BEKA SARIAK

* **Bizkaiko kirolarientzako diru-laguntzak**, titulua ematen duten edo titulurako puntuatzen duten edo goragoko maila baterako sailkapena lortzeko kirol probetan parte hartzen duten kirolarientzat. Foru Aldundiak egiten du deialdia, kategoria hauetan: kadeteak, gazteak, juniorrak eta absolutua. Aurtengo azaroaren 28ra arte Eusko Jaurlaritzak aintzatetsitako kirol-diziplinetan egiten diren probak behar dute izan.

Diruz lagunduko dira aipatutako probetan parte hartzeko izen-ematea, egonaldia, bidaia eta mantenua, baita kirolariek Covid-19aren pandemiarekin zerikusia duten neurriek eragindako gastuak ere, kirolariek beren gain hartu behar izan dituztenak. Argibide gehiago: BAO 241, 2020-12-16koa.

* **Leonardo beka 2021 Ikertzaile eta Kultur Sortzaileentzat**, BBVA Fundazioak emandakoak eta 30 eta 45 urte bitarteko ikertzaile eta kultur sortzaileen lana zuzenean laguntzeko emandakoak, beren ibilbide edo jardura profesionalaren erdiko fasean badaude eta ibilbide zientifiko edo sortzaile berritzaileak badute. 55 beka emango dira, bakoitza 40.000 euroko zenbateko gordinarekin. Eskararak aurkezteko epea 2021eko otsailaren 25era arte dago zabalik. Argibide gehiago becas-leonardo@fbvva.es helbidean.

71 gaztek parte hartu dute 12 tailerretan azken sei hilekoan Aisialdi hezitzailea pandemia garaian

Egoera oso aldakorra eta murrizpen handikoa izan arren, Gazteria Zerbitzuak gure udalerriko gazteentzako jarduerak eskaintzen jarraitu du. Hain zuzen ere, jasaten ari garen pandemia dela eta, gaur inoiz baino beharrezkoagoa da elkartzeko eta sozializatzeko gune seguruak sortzea. Hala, Algortako eta Romoko Gaztelekuak irekita daude uztailetik, edukiera txikiarekin eta higiene-arauekin eta baita espaziora sartzen diren pertsonen erregistroarekin ere. Hilabete hauetan, aire zabaleko jarduerari eman zaie lehentasuna, barruko jarduerari baino gehiago, eta antzeman ahal izan da gazteek elkartu eta partekatuta egin beharra dutela.



Azken sei hilekoan, 11 urtetik 30 urtera bitarteko udalerriko gazteentzako jarduerak ere eskaini dira, hain zuzen ere, kezkei erantzuteko doako ikastaroak eta tailerrak. Guztira, hurrengo 12 tailer izan dira: irratia; mendian orientatzeko oinarritzako teknikak; urpekaritzako bautismoa; zine-foruma; hip-hopa; enplegua era aktiboan bilatzeko; pilatesen hastapenak; kamiseten estanzazioa; autodefentsa feminista; sendabelarrak; maskulinitate toxikoak; eta bideo-jokoak eta gazteak sairean.

Pandemiak eragindako egoe-

ra gorabehera, tailerrak ez dira bertan behera utzi, eta horietako batzuk era telematikoa egin badira ere eta aurrez aurreko tailer guztietan edukiera murriztu bada ere kontuz ibiltzeko, adin guztietako 71 pertsonak parte hartu dute guztira.

Eskaintako tailer guztietan aniztasun funtzionala duten pertsonak parte hartu dute,

eta laguntza eman zaie beharrezkoa izan denean. Ziurrenik, profil honetako gazteak dira, hain zuzen, murrizpenen ondorioak gehien pairatu dituztenetakoak.

Martxoan argitaratuko da uztaile arte egingo diren tailerren eskaintza berria. Hori *Gazteak* aldizkarian, udalaren webgunean eta Gazteria Zerbitzuaren sare sozialetan argitaratuko da (@getxogazte).

Wanted tailerra, aurkeztutako proiektuen aholkularitzarako

Wanted programara azkenean aurkeztutako zazpi proiektuetako 12 sustatzaileek, tailer batean parte hartu zuten joan den larunbatean, urtarrilak 30. Online moduan egin zen tailerra.

Lehiaketara aurkeztutako proiektu horietan akonpainamendua eskaintzen dieten profesionalekin eta programaren arduradun diren Gazteria eta Ekonomia Sustapen Arloetako langileekin batera parte hartu zuten. 23 lagunek parte hartu zuten Art for Life-ek dinamizatu zuen saioan. Wanted programa, gure udalerriko bizitza ekonomikoa, soziala, kulturala eta abar aberasten duten gazteen ideiak sortzen eta babesten saiatzen da.

Beren proiektuak aurkeztu eta ekarpenak jaso ondoren, sustatzaileek 15 eguneko epea dute proiektuak beregiteko eta azken bertsioa aurkezteko, hau da, azkenean, diruz edo aholkularitza zein formakuntza bidez lagunduko diren proiektuak hautatzeko balioetsiko den bertsioa.

Epe horretan, sustatzaileek beren proiektuarekin lotutako gai fiskalei buruzko aholkularitza saioetan ere parte hartuko dute.

Egitasmoari buruzko argibide gehiago www.getxo.eus/gazteria webgunean.

Getxo
bizitza

WANTED

Impulsa tu ideas
Bultzatu zure ideak

18 ETA 30 URTE ARTEKO GAZTEENTZAKO
PARA JÓVENES DE 18 A 30 AÑOS

Zure proiektua azaltzeko hitzordua
eskatu.gazteria@getxo.eus
helbidera idatziz

Pide cita para explicarnos
tu proyecto escribiendo a
gazteria@getxo.eus

GureGune
gaztelekuak

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Otsaila

Hilak 6, larunbata: TAILERRA: MANDALA

Hilak 11, osteguna: EKINTZA: EMAKUME ZIENTIFIKOAK

Hilak 13, larunbata: IRTEERA: ZINEMA

Hilak 16, asteartea: TAILERRA: ZAPATILAK MARRAZTU

Hilak 18, osteguna: TAILERRA: STROM

Hilak 20, larunbata: IRTEERA: ESKALADA

Hilak 24, asteazkena: SUKALDARITZA: TAKOAK

Hilak 26, ostirala: TXAPELKETA: XAKEA

Hilak 28, igandea: TAILERRA: ERLAXAZIOA

GauEgun
gaztelekuak

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Otsaila

Hilak 6, larunbata: ASANBLADA: MARTXOKO PROGRAMAZIOA

Hilak 10, asteazkena: TAILERRA: ERAZTUNAK ETA ESKUMUTURREKOAK

Hilak 12, ostirala: TAILERRA: ARGAZKILARITZA

Hilak 18, osteguna: TAILERRA: GRAFITI

Hilak 19, ostirala: JOLASA: ALTXORRAREN BILA

Hilak 26, ostirala: TXAPELKETA: JUST DANCE

Hilak 27, larunbata: IRTEERA: CLUB HÍPICO LA GALEA